

TURISMOA

BILBAO BIZKAIA HELMUGAREN 2023RAKO TURISMO-GARAPEN JASANGARRIRAKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMA

4. eta 11. arloak - Ekosistema jasangarri baterako proiektuak sustatzea

Araudia	Bizkaiko Foru Aldundiaren 40/2023 Foru Dekretua, martxoaren 28koa. Honen bidez, Bilbao Bizkaia helmugaren turismo jasangarria garatzeko dirulaguntza programari lotutako oinarri arautzaileak eta deialdiak onesten dira, 2023 urterako (Martxoaren 31ko BAO, 64. zk.).
Xedea (1. oinarria)	Bilbao Bizkaia helmugaren garapen turistikoko jasangarria
Dirulaguntzaren onuradunak (15. eta 43. oinarriak)	a) Eskualdeko eta tokiko kudeaketa turistikoko erakundeak eta horien mendeko beste erakunde publiko batzuk (4. arloa): – Enkartertur Enkarterriko turismo-elkartea / Eskualdea: Enkarterri-Meatzaldea – Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea / Eskualdea: Arratia-Nerbioi – Urkiola Landa Garapenerako Elkartea / Eskualdea: Durangaldea – Urremendi Landa Garapenerako Elkartea / Eskualdea: Busturialdea-Urdaibai – Jata Ondo Landa Garapenerako Elkartea / Eskualdea: Uribe – Leartibai Fundazioa – Urduñako Udala – Getxoko Udala – Santurtziko Udala – Portugaleteko Udala – Barakaldoko Udala – Sestaoko Udala b) Bizkaiko udal turistikoeak eta horien mendeko beste erakunde publiko batzuk (4. arloa), turismoa kudeatzeko erakundearen berariazko baimena dutenak. c) Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresaburu-elkarte turistikoko sektorialak (11. arloa), egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan dutenak. d) Euskal Autonomia Erkidegoko turismoko beste enpresa-elkarte sektorial batzuk (11. arloa), egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan dutenak, edo, egoitza EAEn edukiz gero, baina Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo, Bizkaiko Lurralde Historikoan produkzio-zentroekin elkartutako langileak izatea, haien kopurua Bizkaiko Lurralde Historikoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan adierazita. e) Turismo-enpresak eta izaera turistikoko nortasun juridikorik gabeko erakundeak (11. arloa), egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan dutenak eta 2. oinarrian jasotako EJSN bat dutenak, edo turismoko proiektuetan/bezeroetan aurreko ekitaldiko guztizkoaren % 50etik gorako fakturazioa dutenak. Halaber, 15. eta 43. oinarrietan adierazitako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.
Diruz lagundu daitekeen egitatea (16. eta 44. oinarriak)	Diruz lagundu daitekeen egitatea: a) Bisitarien sortutako hondakinak minimizatzeko aukera ematen duten turismo-jarduerak. b) Turismo-espazioen energia-eraginkortasuna optimizatzeko gai diren proiektuak. c) Turismo-helmugaren ingurumen inpaktua murrizteko gai diren ekimenak. d) Bilbao Bizkaia helmugaren jasate-ahalmen turistikoa ulertzeko eta hobetzeko ekintzak. e) Sektore turistikoa lotutako ekonomia zirkularreko proiektuak f) Turismo-jardueraren bidez Bilbao Bizkaian gizarteratzea sustatzen duten jarduerak g) Bizkaiko eskualdeetako kultura-ondarea, euskal kultura eta nortasuna babestea sustatzen duten ekimenak h) Aurreko jarduketei buruzko aurretiazko azterlanak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak (17. eta 45. oinarriak)	Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: Behar bezala justifikatutako inbertsio turistikoak, azterlanak eta zerbitzuak. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko: a) Pertsonal propioaren gastuak. b) Zergak eta tasak, oinarri bereko 3 epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik. c) Aldizkako mantentze-gastuak.
Dirulaguntzen zenbatekoa (18. eta 46. oinarriak)	Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 70ko laguntza, gehienez, eta ez da inola ere honako hau baino handiagoa izango: – 30.000 euro 4. arloko erakunde onuradun bakoitzeko – 30.000 euro turismo-arloko sektore-elkarteentzat (11. arloa) – 15.000 euro turismo-enpresentzat eta izaera turistikoko nortasun juridiko propiorik gabeko erakundeentzat (11. arloa). Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-elkarte sektorial turistikoaren kasuan (Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan ezik): jaso beharreko laguntzaren zenbatekoa Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako inbertsioaren arabera izango da. Laguntza jaso ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da eragina izatea jasagarritasun turistikokoaren 3 eremuetatik 2tan gutxienez (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa). III. eranskineko taulan jasota daude eremuak.
Eskabideak aurkezteko epea (65. oinarria)	Eskabideak telematikoki aurkeztea 2023ko apirilaren 3ko 08:30etik 2023ko maiatzaren 12ko 13:30era, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (www.bizkaia.eus/sustapena-oficinaVirtual). Horretarako, sinadura elektronikoa eduki beharko du (IZENPE, NAN elektronikoa ...), edo b@kQ ziurtagiri elektronikoen bidez sartu beharko du. Ziurtagiri hori gure Orueta apezpikuaren 6. zenbakiko bulegoetan eskatu ahal izango da. Eskabideari erantsitako dokumentazioa aurkeztea: bulego birtualaren eranskineko sistemaren bidez egindako eskabidearekin batera.
Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa (67-69 oinarriak)	• Oro har (67. oinarria): a) Azalpen-jarduketaren memoria bat, proiektuari edo ekintzari buruzko informazioa jasotzen duena. b) Gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasotzen duen memoria ekonomikoa. c) Hartzekodunaren fitxa (hala badagokio) d) Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak kontratu txikiaren zenbatekoak gainditzen dituenean, hornitzaileen hiru eskaintzak. • Berariaz (68. oinarria): a) Bizkaiko Udal turistikoak: bere eragin-eremuko turismo-kudeaketarako entitatearen berariazko baimena, 16. oinarriaren arabera diruz lagun daitekeen egitatearekin lotutakoa. b) EAEko enpresa-elkarte turistikoko sektorialak: Bizkaiko Lurralde Historikoan eta EAEko gainerako lurraldeetan produkzio-zentroekin elkartutako langile-kopurua egiaztatzen duen dokumentazioa, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako inbertsioaren xehetasuna. c) Turismo-enpresak eta nortasun juridiko propiorik gabeko erakundeak: EJSNren egiaztarria (2. oinarria) edo, halakorik ezean, turismo-proiektuetan/-bezeroetan aurreko ekitaldi osoaren % 50etik gorako fakturazioa dutela egiaztatzen duen agiria. • Baloraziorako informazioa/dokumentazioa (69. oinarria). Eskabideak aurkezteko epean ez bada baloraziorako behar den informazioa ematen, ez da ebaluatuko dagokion balorazio-irizpidea. Eskabidea egiten den unean, erakunde eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat eta BEZari buruzko egoera-adierazpen bat sinatuko ditu, bulego birtualaren formularioaren arabera.

Dirulaguntza emateko prozedura (71. oinarria)	Norgehiagoka da dirulaguntzak emateko erabiliko den prozedura; horretarako, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarrak egingo dira.
Baloratzeko irizpideak (76. oinarria)	20 puntu behar dira gutxienez eta 60 puntu gehienez. Balorazio-irizpideak erantsitako III. taulan adierazitakoak dira (Turismo iraunkorraren adierazleak Bilbao Bizkaia). Balorazioa egiteko, ezinbestekoa izango da jasangarritasun turistikoko 3 eremuetatik bitan gutxienez eragitea (gizartean, ekonomian eta ingurumenean).
Gauzatzeko epea (89. oinarria)	Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean hasi eta amaituko dira, eta epea luzaezina da. Hala eta guztiz ere, inbertsio-proiektuak gauzatzea dakarten 4. eta 11. arloak diruz lagun daitezkeen egitateak, hurrenez hurren, 2024ko martxoaren 31ra arte gauzatzea onetsiko da, betiere, behintzat, 2023an hasi bada edo erakundea publikoa izanez gero, jarduera Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari lotutako kontratua kontratuaren mende egonda, lizitazio-prozedura hasi bada.
Justifikazio-epea eta beharrezko dokumentazioa (90. eta 92. oinarriak)	Onuradunek 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko otsailaren 29ra arteko epean aurkeztu beharko dute azken justifikazioa. Salbuespen izango dira martxoaren 31n amaitzen diren jarduketak, horiek justifikatzeko epea 2024ko maiatzaren 31ra artekoa izango baita. Dirulaguntza eskabidea Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez izapidetu behar da. Justifikazio-kontuan informazio hau jaso behar da: a) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, non egindako ekintzak eta lorturiko emaitzak adierazten diren. b) Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko ereduaren arabera. c) Garatutako ekintzei buruzko emaitzen panela, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko ereduarekin bat etorritz. Ezarritako gainerako betebeharrak (dirulaguntzaren zabalkundea, gardentasun-araudia betetzea, hizkuntza koofizialak erabiltzea, genero-berdintasuna, beste gizarte-politika batzuk, etab.) bete izanaren justifikazio-memoria , betebeharrak horiek bete direla egiaztatzen duten txosten, adierazpen eta dokumentuak erantsita (Bulego birtualaren formularioaren arabera).
Azpikontatazio (91. oinarria)	Onuradunak diruz lagundutako jarduera azpikontatatu ahal izango du, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 100 arte.
Dirulaguntza ordaintzea (93. oinarria)	Eman eta onartu ondoren ordainduko dira dirulaguntzak, ordainketa aurreratu bakar baten bidez , emandako dirulaguntzaren guztizko zenbatekoarekin (bermerik eskatu gabe).
Estatutako laguntzak metatzea (94. oinarria)	Foru dekretu honetan 9tik 14ra bitarteko arloetarako aurreikusitako dirulaguntzak minimis laguntzei buruzko 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren mende daude. Beste minimis laguntza batzuekin metatu ahal izango dira, aipatutako Erregelamenduak ezarritako gehieneko mugaraino.
Laguntzen bateragarritasuna (95. oinarria)	Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazioi edo erakunde publikoki zein pribatuki ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baldin eta gastu hautagarri beretarako gehieneko laguntza-intentsitatea errespetatzen bada. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko foru-sektore publikoko bestelako erakundeek edo aurrekoen % 50eko partaidetza edo hortik gorakoa duten erakundeek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.
Beste dokumentu interesgarri batzuk	III. eranskina.